## Hizkuntza eta komunikazioa

Gure hizkuntzan mintzo gara.

## Ingelesa

Beste hizkuntza batzuk ikasiko ditugu.

## Arrazoibide logikoa

Gure inguruak nola funtzionatzen duen ulertuko dugu.

## Garapen psikomotorra

Gorputza eta burua konektatuko ditugu.

## Emozioen kudeaketa

Gure emozioen bidez ikasiko dugu.

## Erlijioaren Irakaskuntza Eskolan

Fedea deskubrituko dugu.

## Nortasun kulturala

Gure ohiturak balioetsiko ditugu.

itb

Ikaskuntza Testuinguru Berria La Salle

# Bizi ezazu!



La Salle ikastetxeen erreferentzia markoa da eta ikaskuntzaren oinarrian jartzen ditu konpetentziak, esperientziak, ikaskuntza zeharkakoa eta instrumentala, izaera soziala eta adaptazioa; betiere, ikastetxe bakoitzaren testuingurura moldatuta.

La Salle

lasalleikastetxeak.org

# Hezkuntza eraldatuz, mundua eraldatzen dugu.

itb

Ikaskuntza Testuinguru Berria La Salle

La Salle

Maila berekoen arteko inguruneak ITBn

Haur Hezkuntza





# Maila berekoen arteko inguruneak

Haur Hezkuntzan, maila berekoen arteko inguruneetan lantzen ditu ITBk curriculumeko edukiak. Maila berekoen arteko inguruneek tentu handiz zaintzen dute zer eta, batik bat, nola ikasi. Gainera, pertsona bakoitzaren heltze prozesua errespetatzen dute, haurrek esperimentazioaren bidez ikasten duten bitartean.

Inguruneetako arloek lotura ugari dituzte, haurraren garapen osoa bultzatzeko, eta ITB printzipio pedagogiko hauek zehar lana egiten dute, gure proiektua oinarritu eta hari zentzu betea emateko: barnetasuna; pentsamenduaren eraikitzea; jokabide eta jarduera autoerregulatua; adimena, gorputza eta mugimendua; eta ikaskuntzaren dimentsio soziala.

## Hizkuntza eta komunikazioa

Hizkuntza eguneroko komunikazio egoeretan erabiltzen ikasten dugu eta gure ikasteko modua eraikitzen hasten gara. Idazteko eta irakurtzeko lehen urratsak ematen ditugu, pertsona bakoitzaren erritmora egokituta.

## Ingelesa

Ingelesa ezagutuko dugu jolasaren bidez, eguneroko komunikazio egoeretan, *speaking* eta *listening* ariketak lehenetsita.

## Arrazoibide logikoa

Haurrek matematikarako duen berezko jakin-mina piztuko dugu. Jolasaren bidez eta manipulatuz ikasiko dugu eta matematikaren arrazoibidea baliatuko dugu askotariko jardueratan.

## Garapen psikomotorra

Eginez ikasiko dugu. Gorputzetik abiatuta eraikiko dugu “nia”. Mugimendu askearen bidez, gorputza eta burua konektatuko ditugu.

## Emozioen kudeaketa

Gure emozioak ezagutu eta onartuko ditugu, autoestimua indartu eta trebetasun sozialak lantzeko.



## Erlijioa

Bizitza eta fedea ospatu, espiritualtasuna landu eta erlijio mintzaira ikasiko dugu.

## Nortasun kulturala

Aberasgarri zaigu gure ohiturak eta beste kulturak ezagutzea, tradizioa balioestea eta elkarte baten partaide izatearen sentipena bultzatzea.